

<p>6. Ikasleei eskola-ingurunean egunerokoan izaten dituzten arazo moraletan hausnarketa etikoak egiten laguntzea.</p>	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		5´	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Dilema moralak lantzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1. dilema • 2. dilema • 3. Dilema <p><i>Irakaslearentzako gida</i></p>	50´	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		5´	